

AZKOITIA / Liburutegia kontzejupean datorren urriak 22an

AZKOITIA. DV. Urriak 24ean liburutegiaren eguna ospatzen da mundu osoan zehar eta ekintza berezi bezala egun horretan liburutegia 12 orduz zabalik egongo da, goizeko 9:00etatik iluntzeko 9:00etara. Urriak 22an berriz, larunbata, liburutegi zerbitzua eskainiko da kontzejupean, bertan liburu multzo bat egongo da maileguan hartzeko eta baita bazkide txartela egiteko aukera ere. Inkestak banatuko dira liburutegiko zerbitzua hobetzeko asmoz eta baita jendearen proposamenak jasotzeko. Bestalde gogoratu Urriak 3tik aurrera Aizkibel Liburutegiak eta KZguneak ordutegi berdina dutela astelehenetik ostiralera. Goizeko 9:30etik 13:30era eta arratsalde 16:00tik 20:00etara. Udazken honetan zehar, liburutegia larunbat goizez 11:00etatik 13:00 bitartera zabalik egongo da.